

MANIFIESTO DEL AYUNTAMIENTO DE SANGÜESA-ZANGOZA CON MOTIVO DE LA CELEBRACIÓN DEL DÍA DE LA MUJER, 8 DE Marzo DE 2022

Ha llegado de nuevo el 8 de marzo, el Día de la mujer. Naciones Unidas ha elegido para 2022 como lema: **“Igualdad de género hoy para un mañana sostenible”** En un mundo con profundas brechas entre ricos y pobres son estos quienes más sufren las consecuencias de la crisis climática y las más pobres de los pobres son mujeres ya que constituyen la mayoría de la población pobre del mundo y son más dependientes de los recursos naturales que están bajo la amenaza del cambio climático. Al mismo tiempo, las mujeres y las niñas son líderes eficaces y poderosas que impulsan el cambio para lograr la mitigación y la adaptación climáticas. Se implican en iniciativas sostenibles en todo el mundo y su participación y liderazgo generan una acción por el clima más eficaz.

En nuestra ciudad el cambio climático se percibe con consecuencias menos drásticas y no interfiere en el día a día, no nos impide seguir con nuestros trabajos y nuestro modo de vida. La cotidianidad en 2022 de Sangüesa es otra. La diferenciación de roles femenino y masculino está muy marcada, los niños y niñas la perciben y la asimilan. Pasa de una generación a otra. Aunque busquemos educarlos en la igualdad, en los libros de texto y en otros recursos educativos el 75% de los representados en una profesión científica son hombres. En la docencia ocurre lo contrario el 64% son mujeres.

¿Hay cerebros de chicas y cerebros de chicos?

La ciencia parece que es una cosa de chicos, pese a que el interés por las asignaturas de ciencias y tecnológicas es igual en la primera edad en niños y niñas a partir de los seis años las niñas se sienten menos eficaces en matemáticas y empiezan a creer que las personas de su mismo sexo no son tan brillantes. Es fundamental el apoyo de los allegados y el cambio de mentalidad de la sociedad para romper con estos estereotipos que valoran mucho más cualquier logro masculino. Si lo mismo lo consigue una mujer parece como si no fuera tan difícil. Porque hay mujeres brillantes en sus campos, cuyo trabajo nos pasa desapercibido.

¿Hay cosas de chicas y cosas de chicos?

Los centros educativos de la ciudad se encuentran estas semanas reflexionando sobre lo que las niñas/chicas/mujeres pueden o no pueden hacer y sobre lo que los niños/chicos/hombres pueden o no pueden hacer. Salirse del guion, hacer lo del otro es exponerse a la burla de los iguales y exige una gran seguridad en sí mismo. Centros educativos, instituciones y muchas familias tratan a niños y niñas por igual, dándoles seguridad en sus posibilidades, apoyando sus iniciativas y fortaleciendo sus vocaciones para que crean en ellas y en que ellas pueden conseguirlo.

En el día internacional de la mujer 2022 el Ayuntamiento de Sangüesa-Zangoza acuerda:

-sumarse a la concesión por parte del Gobierno de Navarra del Premio Berdinna 2022 a la entidad COCEMFE Navarra, por “su trabajo en favor de la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres, específicamente en el ámbito de la discapacidad”.

-dar visibilidad a sangüesinas que por su trayectoria en diferentes ámbitos, sirven de referente a las nuevas generaciones y son un valor para nuestra comunidad.

-elaborar los protocolos de Sangüesa frente a las agresiones sexistas en espacios festivos y de actuación en casos de asesinatos y situaciones graves por violencia contra las mujeres.

-seguir trabajando e impulsando iniciativas que vayan reduciendo la brecha entre hombres y mujeres, entre niños y niñas construyendo entre todos Sangüesa en Igualdad.

ZANGOZAKO UDALAREN MANIFESTUA, MARTXOAREN 8AN EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA

Iritsi da, beste behin, martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna. Nazio Batuek, 2022rako, lelo hau aukeratu dute: "**Genero-berdintasuna gaur, etorkizun iraunkorra bihar**". Munduan, non aberatsen eta pobreen arteko arrakalak oso sakonak diren, bigarren horiek sufritzen dituzte gehien klima-krisiaren ondorioak; eta pobreen artean pobreenak emakumeak dira, munduko biztanleria pobreen gehiengoa, klima-aldaketaren mehatxupean dauden baliabide naturalekiko mendekotasun handiagoa dutenak, gainera. Aldi berean, andreak eta neskatilak buruzagi eraginkor eta boteretsuak dira, klimaren arintzea eta egokitzapena lortzeko aldaketa bultzatzen dutenak. Mundu osoan, ekimen jasangarrietan inplikatzeko dira, eta beren parte-hartzeak eta lidergoak klimaren aldeko ekintza eraginkorragoa dakarte.

Gure hirian, klima-aldaketa ez dugu hain ondorio larriekin hautematen, eta egunerokoan ez du eraginik, ez digu gure lanekin eta bizimoduarekin jarraitzea eragozten. 2022an, Zangozako egunerokotasuna bestelakoa da. Rol femeninoak eta maskulinoak nabarmenki bereizita daude, haurrek hala hauteman eta hala barneratzen dituzte. Belaunaldiz belaunaldi transmititzen dira. Berdintasunean hezi nahi baditugu ere, testuliburuetan eta beste hezkuntza-baliabide batzuetan zientziaren arloko lanbide batean ageri diren pertsonen % 75 gizonaek dira. Irakaskuntzan, aldiz, kontrakoa gertatzen da: % 64 andrazkoak dira.

Badaude nesken garunak eta mutilen garunak?

Badirudi zientzia mutilen kontua dela, nahiz eta zientziarekin eta teknologiek inplikaturik irakasgaien gaineko interesa berdina izan neska-mutilen haurtzaroan; alabaina, sei urtetik aurrera, neskek sentitzen dute matematiketan ez direla hain eraginkorrak, eta beren sexuak ez direla hain adimentsuak pentsatzen hasten dira. Gertuko babesa eta gizartearen pentsamolde-aldaketa funtsezkoak dira gizonen edozein lorpen askoz gehiago balioesten duten estereotipo hauek ezerezteko. Emakume batek gauza bera lortzen duenean, ez dela hain zaila dirudi. Izan ere, badaude beren esparruan bikainak diren andreak, haien lanaren berri jasotzen ez badugu ere.

Badaude nesken gauzak eta mutilen gauzak?

Aste hauetan, hiriko ikastetxeek neskatoek/neskek/emakumeek egin ahal dutenari edo egin ezin dutenari eta mutikoek/mutilek/gizonek egin ahal dutenari edo egin ezin dutenari buruz hausnartzen dihardute. Ezarritako gidoiari ez jarraitzeak, besteak egin ohi duena egiteak, norberaren berdinek iseka egitea dakar, eta nork bere buruarengan konfiantza handia izatea eskatzen du. Ikastetxeek, erakundeek eta familia askok berdin tratatzen dituzte neska-mutilak, beren aukerei dagokienez segurtasuna emanez, beren ekimenak babestuz eta beren bokazioak sendotuz, sinets ditzaten eta lor ditzaketela uste dezaten.

Aurten, Emakumeen Nazioarteko Egunean, Zangozako Udalak honako hau adierazi nahi du:

- Bat datorrela Nafarroako Gobernuak Berdinna 2022 saria COCEMFE Navarra erakundeari emateko erabakiarekin, "emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren alde egiten duen lanagatik, zehazki desgaitasunaren esparruan".
- Hainbat eremutan egindako ibilbideagatik belaunaldi gazteagoentzat erreferentzia eta gure komunitaterako balioa diren zangozarrak nabarmendu eta agerian jarriko dituela.
- Jai-guneetan eraso sexistei aurre egiteko eta emakumeen aurkako indarkeriagatiko hilketetan zein egoera larrietan jarduteko Zangozako protokoloak osatuko dituela.
- Gizon eta emakumeen arteko arrakala, mutikoen eta neskatilen artekoa, gero eta gehiago murriztuko duten ekimenak lantzen eta sustatzen jarraituko duela, denon artean Zangoza Berdinzalea eraiki dezagun.